

AGATE DEUNA

1

Emen alkartu gaitu beste bein
Agate Deunaren jaiak,
or agiri da maite dogula,
kristau euskaldun anaiak.

2

Gure Agate jaio ta azi zan
aintxinako Sizilian,
Kataniako ugartetxoan
irugarren gizaldian.

3

Txiki-txikitan bateatuta
ezita sinismenean,
gurasoak au esaten eutsen
Jainkoaren izenean:

4

“Entzun, Agate, asko daukagu
ondasun eta dirutan,
kristautasuna ederrago da,
eukizu beti gomutan”

5

Gazte liraina, kristau jatorra,
a etorren landarea!
Zenbateraino zan aztertzeko
sortu jakon aukerea.

6

Or Kintziano Agatarekin
egin jatzun maitemindu,
aldez ta moldez beraganatzen
benetan zan alegindu:

7

“Kintziano naz, ene Agate,
emengo gobernadore,
neugaz ezkondu zaitez ta beti
biziko zara dotore”.

8

“O Kintziano, badakit zugaz
nintzakela erregina,
baina Jesusen emazte nozu
gorputz t'arimaz birjina”.

9

Aleginetan eraso eutson
bein gozo ta bein gogor,
baina berean tinko jarraituz,
Agatek beti entzungor.

10

“Burua galdu dozu, Agate,
zu eskeinduta Jesusi?
Jesus il zan ta, jakizu ondo,
emen neu naz nagusi”

11

“Jesus il zan bai, gero berbiztu
eta orain neugaz dago,
o Kintziano, aundia zara,
baina Jesus aundiago”

12

“Zuk ni, Agate, mezipreziatu
ta zuk adarra jo niri?
Jesus orregaz batu zaitez
galduko zaitut martiri”

13

Eskuak lotu, jantzik kendu,
erre ta moztu bularrak,
baina geiago al dau Jesusek
deutson maitasun sugarrak.

15

“Birjintasuna txotxakeria”,
gaurko askoren esanez,
orra Agatek argi ta garbi
odol ta guzti esan: EZ!

17

Gogoan artu dogu, Agate,
zure irakaskizuna:
biotz lizunez ezin da lortu
egizko askatasuna.

19

**Agur Agate, emen daukazu
Izurtza pozez kantari,
orain arte lez, gaur be dinogu:
Zeu Izurtzako Zaindari.**

A. Martzel

14

Zenbat adore ta indar daukan
Jaungoikoaren graziak,
munduak baino geiago al dau
martirien erraziak.

16

Agate Deuna, arrigarria
jaku zure martiritza,
ori bai dala ondo zaintzea
bateo santuko itza!

18

Gaztediaren alde erreguz
gatorkizuz gaur, Agate,
argitu eizuz eta sendotu
euren gogo borondate.